


# Nafar **k**aria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994eko urtarrilak 7 / IV. urtea / 109. zenbakia

## Ilusioaren negozioa

Jostailu-denden negozio egunak izan dira hauek. Hasieran Olentzero, Erregeak ondoren, etxe gehienetan izan da zer ospatu, zer oparitu eta zer jaso. Eta izan dira zorabio egunak, orobat. Dendak gainezka, haurrak baino gehiago gurasoak zebiltzan han-hemenka, hurrei aditutakoa bilatzen, gustukoaz gozaten eta gauza berriekin txoratzen. Berriozarren zabaldu den 'Munduko jostailu-dendarik handienak' ere eragina izan du aurten, eta bertan izan diren jende ilara etengabeak jasan ondoren, ohitzen hasiak garen hiperren tankerako erosketa egin

ahal izan dute askok: denetarik eta dena batera. Ibilbidea egin genuen dendaz denda, bai eta zorabioan galdu ere. Ilusioaren zorabioan.



Amen eta omen

INGERU EPALTZA



### Bestondo

Mozkorren eraginez, bart belarritako, eraztun eta eskuturrekoak kendu gabe oheratu den emakumea bezala lotu zaio gaur hiri hau bere gaiak erauntzeari, bestondoari ezin atxikiz eta ispiluak errainu lainozu bat baizik isladatzen ez duela begi gaizki lo eginen aitzinean. Hogeita lau ordu baizik ez dira iragan atzokotik gaurkora, eta hala ere tarte llabur horrek mende baten eitea du, hain baitira zaharkitu eta lekuz kanpo gelditu onadurak eta argi distiratsuak karrikan, pinu apainduak eta jaiotzaren figurak etxeetan. Uztailaren erdi aldean gertatzen den bezala, egunerokotasunak ez-ohizkoa azpiratu du behin berriz, eta derrotaren paisaian ez da erraza oroimena balantze lanetan abiatzea.

Zerk dirau bizirik egun hauetako tripa-besta eta diru-xahutzeetatik? Eguberri Gaueko bake giroa elkarbizitzaren miseriek itzuli dute jadanik ahanzturaren mugetara. Urteberriak desira berezirik adierazi gabe harrapatu gaitu, aspaldi ikasi baikenuen txanpainak eta mahaikideen zalapartak idarokitako desira horiek ez direla sekula ere betetzen. Erregeek, berriz, ez digute ekarri guk nahi genuena, guk nahi genuena ez ekartzen-eta inongo buru ko-roatuek. Idurimena, gainera, ahituta gelditu zaigu bertzeendako opariez pentsatzen kaxkoa hainbertze nekatuta. Horiez landa, buruko min pixka bat, inola ere lekutzen ez den ezul madarikatu hau, bi kiloko irabazia sabel aldean eta etxeako armairuak, jostailuz ihaurri.

Gibelera gelditu dira bi astetako farrak eta marrak. Urtarril aldapa-zuari eman behar orain buru, sakel-huts eta gogoz urri. Bertze afera mota batzuetan, depresio post-coitum erraten zaio, zientifikoki, arazo honi.

### ERAKUSKETAK



**Ana Mari Marin** Baztango artistaren erakusketa zabalik dago Iruñean, Aurrezki Kutxa Municipalak Garcia Castañon kalean duen aretoan. Azken bi urteotan egindako lanak daude ikusgai, eta urtarilaren 30a arte iraunen du. Ikusteko ordutegia ohizkoa da: lan egunetan 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan 12.30etatik 14.00etara.

**'Amerikako argazkiak'** izeneko erakusketa zabalduko da heldu den astelehenean, urtarilak 10, Elizondoko Kultur Etxean. Otsailaren 4a arte iraungo du, ohizko ordutegiarekin.

**Juan Satrustegi** Lizarrako artistaren erakusketa zabalik dago gaurtik hasita Lizarrako Banco Atlanticoen kultur aretoan. 'Gure mendizerrak Lokitz, Urbasa eta Andia' izenburupean, urtarilaren 31 arte izango dira ikusgai margolariaren olioak.

### ZINEMA



**'Mujer blanca soltera busca'** izenburuko pelikula botako dute asteburu honetan Donezteben. Kultur taldeak antolatuta, larunbat eta igandean eskainiko dute, arratsalde eta gaueko saioetan.

**'Parque Jurásico'** pelikula ospetsua eskainiko dute igande honetan, urtarilak 9, Leitizan, bertako Udaleko kultur taldeak antolatutik. Arratsaldeko eta gaueko saioetan emango dute.

### MUSIKA



**Patxi Ugarte** kantautoreak kontzertu bat eskainiko du gaur ostirala, urtarilak 7, Lizarrako Trovador dantzalekuan. Gaueko hamaiketan hasiko da.

**Nahizer Bizkor** musika taldearen kontzertua izango da bihar larunbata, urtarilak 8, Iturenen, Ibintza gazte elkarteak antolatutako Kultur Egunak zikloari amaiera emateko.

### IKASTAROAK



**Andrea** emakumearen aldeko elkarteak ikastaroak antolatu ditu hilabete hauetarako, maila ezberdinetan. 'Autodefensa' ikastaroaren lehendabiziko mailak martxora arte iraungo du, eta bigarren mailak ekaina arte. Arratsalde izango dira. Hauetaz gain, 'Zeure burua zaindu', Yoga eta Autoestima ikastaroak ere egin daitezke. Informazio gehiago nahi duenak, 22 77 14 telefonora deitu behar du.

## NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

### Orbaizta eta Parke Naturala


Malli Txapar Orbaiztako alkatearen eta bere taldeko hiru zinegotzien dimisioa Pirinioetako Parke Naturalaren inguruan hasi berri den eztabaidaren lehenengo ondorioa izan da. Eztabaida horretan Orbaiztako Udalak autonomiaren karta jokatu nahi izan du, baina bere funtzionamenduak berak *boomerang* batena egin du: nik ematen dizut agintea, neuk kentzen dizut.

Orbaizta beti izan da herri berezia. Aezkoa osoan bizi den ezkortasun giroak ez zuen, nonbait, bertan isladarik, eta Batzarre inguruko A.E. Gazteak taldeak kandidatura aurkeztu eta alkatetza lortu zuenetik, irla baten moduko martxa eraman dute bertan. Udalaren jarduera inguruko herrietan baino franko handiagoa zen. Herriko erabaki guztiak batzarrean eztabaidatu eta onartzen ziren, eta herri bizi eta aurrerakoien irudia ematen zuen. Horrelako eztabaida batean izandako ezadostunak, baina, kendu du postutik talde nagusia.

Eta eztabaida garrantzitsuenetakoa da. Pirinioetako Parke Naturalaren lehen pausoa, hau da, Baliabide Naturalen Antolaketa Egitasmoaren aurreproiektua, funtsezkoa baita inguru osoarendako. Orbaiztako Udalak planteatu zuen eztabaida prozesuan autonomia gordetzea, berari dagozkion 7.000 Ha. inguru kontuan harturik. Bertako batzarrean baina, oniritzia eman zitzaion Aezkoako Batzar Nagusiak planteatutakoari, hau

da, gainontzeko ibarrekin batera batzorde nagusi bat osatu eta denak batera Nafarroako Gobernuarekin negoziatzeari. Halaber, Aezkoako Batzarrak bi pista zabaltzeko asmoari ekin zion, eta atzera bota zuen Orbaiztako Udalak, ingurugi-

gora-behera, Parke Naturalaren inguruko eztabaidan ere iritzi ezberdinak izan dira nagusi, eta Aezkoa bultzatzeko eta berpizteko aurkeztu zen Egitasmo Orokorrean isladatu ziren. Batzar Nagusiak burubelarri sartu ziren proiektua



roarendako kaltegarriak izango zirelakoan. Horri ere ezetza eman zion herriko batzarrek.

Aezkoako Batzar Nagusian gehiengo da, luzez, Herri Batasuna, eta talde honen eta Orbaiztan nagusi den Batzarrearen arteko lehia aspaldikoa da. Desberdintasun politikoak


aurkeztu eta burutzeko, baina Orbaiztako alkatearen ingurukoek kritikatu egin zuten proiektua, «handikeria eta amets hutsa» zela iritzita. Finen, etorkizunari buruzko bi ikuspegi desberdinak azaltzen ziren jarrerotan. Batek zuen irla bakarra, ordea, gal daiteke.

### ASTEKO PERTSONAIAK



Ramon Mur  
Kazetaria

Joan den abuztuan hartu zuen Ramon Mur kazetari nafarrak 'Navarra Hoy' egunkariaren zuzendari kargua, eta orduan «egunkari berria egitera» zetorrela adierazi zuen. Gauzak, ordea, aldatu egin dira. Aste honetan Zeroa Multimedia enpresaren Administrazio Kontseiluak Mur kargutik kentzea erabaki du, eta Patxi Zudaire zuzendariordea jarri dute haren tokian. Gabonetako oporretatik iritsi eta ezuste itzela jaso zuen kazetari nafarrak, ez baitzuen horrelakorik espero. Egunkariaren berrikuntzak bideratzeko ekarri zuten, eta dagoeneko hasia zen proiektu berriak osatzen. Enpresak ez du argitu erabaki honen zergatia, ezta langileek ere. Proiektu berria atzeratu egin dute berriro, orain otsailean edo martxoan aterako dela baitiote.



Rodolfo Izal  
Apaiza

Rodolfo Izal atarrabiarra Mexikoko Chiapas estatuko San Cristobal de las Casasko gotzaindegiko apaiza da, eta une zail hauetan bozeramaile lanetan dabil bertan. Horregatik, protagonista izan da aste honetan, Zapatisten altxamendua dela eta. Armadaren eta Zapatisten arteko enfrontamenduak, Chiapas estatuko egoera latza, Eliza Katolikoren papera, eta bestelako gaiei buruzko informazioa eskaini du Izalek, nekazarien iraultza ulertzeko baliagarria oso. Bizimodu latzak eragin duela iraultza aipatu zuen, «Chiapas beti izan baita trenaren azken furgonia eta berdin jarraitzen du». Altxamendurako «arrazoi objektiboak» badaudela azpimarratu zuen. «Indigenen bizitza egoera onartezina da, eta ez kristau batentzat bakarrik, edozein gizakiarentzat baizik».

### AHAZTU GABE!

#### MUSIKA



**Eguzki Irratiaren** 10. urteurrena ospatzeko, kontzertu ikusgarria izango da asteburu honetan Iruñerrian, edo zehazki esanda, Berriobeiti herrian. 'Eguzki Irratia, hamar-kada luzea uhinetan libre' lelopean, Navarrerria kaleko irratia esfortzu berezia egin du oraingo honetan. 21.00etan hasita, Patagonia, EH Sukarra, Zarama, Kojon Prieto Azabache y los Huajolotes eta Drindots taldeek kontzertu bikaina eskainiko dute biher Berriobeitiko El Soto Industrialdean. Irratikoak saiatu ziren Iruñean bertan leku aproposa aurkitzen, baina hori ez da lan erraza, eta kanpora atera behar izan zuten. Hala ere, autobusak antolatu dituzte, arratsaldeko zortzietatik goizaldeko hirurak arte, ordu erdiro; Tres Reyes Hoteletik aterako dira. Sarrerak 800 pezetan eros daitezke Katu eta Sua tabernetan eta Zeppelin eta Kilkir diskodendetan. Sarrerak ere salduko dituzte, noski, baina 1.000 pezetan. Zaramak bere azken diskoa aurkeztuko du: 'Binilo Bala'.

### JENERO XUMEKOAK

#### Lehenagoko toponimoez

Lehenagoko toponimoez eta heriotzaz zaharrek ez ikus da inor akordatzan. Geroko mapean ez dugu hainbeste leku-izenik edukiko. Hala ere dermio bera izanen da, heriotzaren erresuma eta haren barrutiak.

ELIAS SARASA - ERRO

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



### Urepele

## Ura bizi-emaile

L. ETXEZAHARRETA / UREPELE

Urepelen eta Baigorriko bailara guzian urtarrilaren erditsura arte 'Balio publikorako Inkesta' hasia da: bakoitzak irakur dezake 'Ithurri Handiko uren botiletan ezartzeko xedea' eta honi datxizkion arazo eta abantailak. Xedea herriaren biziarazle enplegu berrien bidez dager, hargatik kamioi trafikoa kalteak toki bake-tsuari ekarriko dizkio. Iturriaren jabetasunaz ere eztabaidak dira.

Uraren esplotazio industrialaz asko hitz egiten da egun hauetan bailaran. Gai premiazkoa da Urepeleko eskualdearentzat 143 lanposturen xedea badelakotz atzean. Beste alderdi ilunik badauka gaiak. Alde batetik kamioi trafiko inportante batek ekar liezaizkiokeen kalteak ingurugiroari nabari dira. Bestalde, uren erabilpena, nazioarteko sozietate batek kudea lezakeena, noren esku izanen den ez da argi. Iturriaren jabetasunaz hogeitertakoz eztabaida juridikoa ere hor da.

'Inpaktu ikerketa' egin da jadanik Urepeleko ur iturri ezagunak 'Ithurri Handiak' ekar litzakeenez. 143 enplegu sor daitezke, horietatik 96 'tresna erabiltzaileena' daitezkenak eta hiru taldeetan '3x8' sistema gau eta egun lanean ari daitezkeenak. 1.260.000 botila ur egunero presta daitezke. Horretarako diru inbertsioa 150 milioi liberakoa izan daiteke (3.750 milioi pta.)



Urepelen lanpostu franko sortu litezke.

Gauza argia da udaletxeetan diren txostenen arabera, bideetan kalteak izango direla. Egunero, alabaina, Urepeletik Baigorriara 78 kamioi ibiliko dira. Banka aldeko pasaian ezingo dira edo nekez gurutzatuko dira. Baionako porturaino joanen dira handik untziz esportazio baten obratzeko.

Oraindik ez da argi noren esku sozietatea izan daitekeen jabe. Baimenak lortu artean 'aferragile' isilak dira arartekoak.

Urepeleko plazan hektarea bateko fabrikari, Ithurri Handitik hodi bidez 3,5 kilometrotan eraman ura botilaratuko dute. Urepele lor lezake bost zentimo, pezeta baten inguruko tasa botila bakoitzeko.

Jabetasun eztabaida bat hargatik bidean da 1974a geroztik. Edouard Zaldubehere urepeldarrak dio berea dela, aldiz Puyoko biarnes batek, Pierre Duthill-Lafrancek, dio berea dela. Auzi

bat Donapaleun horretaz epaituko da hil honen 14ean.

Duela zenbait aste, Ithurri Handian garbiketa zerbait egiten zutelarik, istripuz kloro pastilak erori ziren uretara eta arrain haztegi bateko amuarrain guztiak pozoindu ziren. Iragarpen txarreko ekitaldi honek beste kezka bat dakar: Ithurri Handiko ura erabiltzen duten arantziegiak zenbat erabiltzen ahaliko duten lantegia egiten bada.

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta



## Gora txinatar flana!

Hobeak al dira baserriko arrautza flanak Flan Chino El Mandarín hautsekin egindakoak baino? Ez, ez eta sekula santan ez. Gehiago esanen dut. Baserriko flanen arrautza zaporea jasangaitza gertatzen zait, eta hautsekin egindako flanen gelatinak, berriz, zorutzen nau.

Txinatar hautsekin eginiko flan horietan datza zutabe honen ardatz filosofikoa, flanen metafora horrek kasik Konfuzio —hautsak bezala, txinatarra bera ere— filosofoaren maisutasunez azaltzen baitu zutabe honen mami. Naturalak, herrietan egindakoak, ez dauka zertan metropolikoak, hirian egindakoak baino hobe izan beharrik (sinesgaitza bada ere, esaldia ez da *Konfuzio dixit*, nik asmatutakoa bai-zik).

Hau da, gure artean hiritarra eta hirizalea izatea bekatu bilakatu den honetan, nik txoko honetatik hiritar harrotasuna aldarrikatuko dut. Hiritarra naiz eta harro nago, eta ez dut harrotasun hori astebururo purgatzeko. Asteburuetan ez dut ihes egiten, ez naiz mendira joaten, ezta herrira ere, eta kiroletan gutxitan aritzen



naiz. Hirian, Iruñean bizi naiz, eta gustura gainera.

Mendira joan behar dela? Hor dago Navarrieria kaleko maldatxo gora eta behera ibiltzeko. Herrietako ohitura zaharrak berreskuratu behar direla? Zer dago ba txikiteoa bezain tradizionala. Noizean behin sentsazio fuerteak beharrezkoak direla? Ba *Freeclimber*, *freeki* edo *friskis* horiek bezala *treking*, *goming*, *rafting* edo antzekoetan ibili ordez, Paris-Niza zeharkabidea egiten dut. Jarauta kaleko Paris tabernan hasi eta, Kaldereria karrika igaro eta gero, Niza tabernan amaitu.

Guzti horretatik, eta nik bezala pentsatzen dutenak asko eta asko direlakoan, hemendik aurrera astero gau-txori iruindarrei Navarrieria kaleko iturritik mokoka ariko naiz, inguruan ikusten dudana berri emateko. Bien bitartean izan hiritar, eta gora txinatar flana!

### Leitza

## Inguruak ezagutzeko mendi ibilaldiak Aurrera-ren eskutik

IRUÑEA


Leitza inguruko hainbat mendi ezagutzeko aukera eskainiko du Aurrera Elkarteak ibeltzean hasita eta maitza bitarte, mendia eta ingurugiroa gustuko dutenek esku-eskura izan dezaten plana egin. Ateraldiak, baina, ez dira inguruko txokoetara soilik izango, eta Euskal Herriko mendi ezagunak ere bisitatuko dira.

Ibilaldiak oinez eta mendiko bizikletaz egin ahal izango dira, eta horretarako egun batzuk lehenago eman behar da abisua Maimur edo Astiz liburudendetan, garraioak eta abarrak antolatu ahal izateko.

Oinez egiteko ibilaldien egitaraua hilaren 16an hasiko da eta Aizkorri-Urbieta bitarte izango da txangoa. Gipuzkoako tontor altuena ezagutzeko parada, Aran-

tzazutik gertu. Otsailaren 13an, Anboto-Urkiola izango da ibilbidea, eta martxoaren 13an, Adi-Ortanzurietan. Apirilaren 17an izango da Leitza-Arantza bitarteko zeharkaldia, tontorrik igo baino bazterrak ikusi eta gozatu nahi dutenentzako proposa, eta maiatzaren 22an Auñamendi Belagua inguruko tontor garrantzitsua izango da helburua.

Mendiko bizikletaz Leitza-Andoain-Leitza prestatu dute elkartekoen ibeltzaren 8rako, hau da, biharko, eta otsailaren 27an, Uitziko gaina-oringo asko-Basakabi-Leitza zeharkaldia egingo da. Martxoaren 27rako Leitza-Aizan-Urdola-Sasain-Ixtegi-Sasain-Urkizu-Plazaola-Leitza zeharkaldi ederra prestatu dute. Mendira joateko pentsatu nahi ez dutenek, beraz, ez dute aurrerantzean aitzakiarik izango.



Leitza inguruak bisitatuko dira.

**HORRELA** Barruko Jantziak, Galtzerdiak ...  
Martín Azpilicueta, 16 Tel. 279316 - 31011 IRUÑA

**B**atzuk Olentzerorekin hasi ziren, baina beste askorendako aste hau izan da jostailuekin zorabiatzekoa. Nafarroak urte honetan izan du non aukeratu, 'Munduko jostailu-dendarik handiena' izenekoarekin eta Zarapea enpresa nafarrak atera duen bilduma ezin politagoarekin. Nolanahi ere, betiko kezka, haserreak eta pozak ohi bezala nahastu ziren. Ez baita jostatzekoa.

## Ez da jostatzekoa

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Kaleek zuten irudia ez zen nolanhikoa. Gurasoen eta umeen arteko harreman ezkutuei buruzko tesia egiteko modukoa. Egun batzuk falta ziren artean Erregetarako, eta gaituta genuen ordurako Olentzero. Ez zen oso berandu, baina argiak aspaldian ziren piztuta, eta langarra ari zuten. Elurra behar zuen Gabonetarako ohizko (ohizko ala gogozko=telebistako?) arratsaldea izateko. Iruñeko jostailudenda nagusietan, zorabioa.

Arreta merezi zuen gaiak, eta lehendabiziko harridura: haur eskasia. Gurasoak ziren jostailuen artean nerbiosturik, hura edo bestea seinalatuz, honetaz eta hartaz mintzatuz, eta honakoa eta halakoa aukeratuz. Beraiek zi-

**G**urasoak ziren jostailuen artean nerbiostuenak; hura edo bestea seinalatuz, honetaz edo hartaz mintzatuz.

tuzten poltsak eta opariak, eta beraiei pizten zitzaizkien begi guztietan dagoen ilusioaren argia, telebistan ikusitako zorioneko panpina edo gerlaria ikustean. Erregeak, gurasoak?

«Barbi deitzen da panpina hori, nik badakit», esaten zion andre zahar batek atzetik isil-isilik jarraitzen zion lagunari. Telebistaren eragina ez da soilik haurrengan nabaritzen, bistan da. Langileak etengabe ari ziren lanean, kaxa hutsak pilatuz eta bezeroei beren arreta guztia eskainiz. «Bai, jauna, pila alkalinak behar ditu kotxeak»; «bai, hemen saltzen ditugu»; «bai, mila pezetan bakoitza». Negozio ederra ilusioa.

Hori bai, zaharrendako ustekabea: ez da scalextric, ez panpina ezagunik. Ilusioak beste izenak dauzka, amerikarragoak, arrotzagoak. Berdin da, telebistaren eragina menderaezina dela diote adituek. Kalera irtenda, kotxeak gaizki aparkatuta, garbia inguruan, saiak ardi hilaren ondoan bezala, eta langarra oraindik. Kotxe barruan gurasoak eta umeak oihuka, nekatu-rik eta asperturik, ilusioa galtzean.

Iruñetik kanpo, baina gertu, 'Munduko jostailu-dendarik handiena': Izen errepikaezina, baina arrakasta aparta, nonbait, hilabeteotan. Hiperren moda eta morrontza gainezka gure Nafa-



Iruñeko denda batean, gazte zein zahar, liluraturik.

JOXE LACALLE

## Muga, betikoak berri

P.U. / IRUNEA

Joan den hilean aurkeztu zen Muga jostailu bildumak berritasun kutsua eman izan dio aurtengo zorabioari, ohizko Nintendo, panpina, lapur suntsitzaile eta arima gaiztoen kontrako mailuz gain. Daniel Nebot diseinugile valentziarraren eskutik, Zarapea Nafarroako enpresa berriak era sinesgarrian nahastu ditu diseinua eta tradizioa jostailu bildu-

man, eta kamioiak, panpinak, txotxongiloak eta beste jostailu franko eskaintzen ditu, haurren eta gurasoen gozamenerako. Nafarroako Berrikuntzarako Europar Zentroaren laguntzaz, Laussanen (Suitza) antolatu zen Nazioarteko Diseinu Erakusketan izan zen bilduma, eta 1992ko Diseinu Industrialeko Valencia Innovacion saria jaso zuen.

Bildumak 'haur jostailua' izendapena gaitu eta bildu-

mazaleendako artikulu bihurtu dira. Gure aiton-amonek zituzten betiko jostailuak 1993an nolakoak izango ziren? Hori izan zen Daniel Nebot diseinugileak izan zuen abiapuntua bildumarako. 1953an jaioa Valentzian, bere diseinuek sari franko jaso dituzte, eta gaur egun egitasmo orokorreki begira egiten du lan. Hauetako esker, diseinugileak duen ikuspuntu orokorra gauzatu daiteke bilduma oso batean.

rrua honetan. Aparkatzeko nahiko lan, aparkalekua itzela izanik ere. Negozioa bete-betea ari den seinale. Sartu bezain pronto, hasierako susmoak berretsita: jostailu-denda baino, makro-denda. Apal guztiak beterik, lepo egin da, eta gurasoak eroturik, erosteko sistema berriak zorabiatu-rik.

Ordenadore eta kontsola elektronikoen apalategia, bitxi-ena. Gazteak bertan pausatuz, liluraturik, eta gurasoek ezta ikusi ere egin nahi. «Aita, etorri ikustera!», semeak; «utzi bak-kean!», aitak. Hala ere, begirada harrituak ez ziren falta, eta haserreak 90ko jostailuak ezin gozatzuz amorrazioak sortuta zirudien. Horren lekuko, aurrexeago zeuden metrailetan jokatzeko zuten erreparo izpirik eza.

**O**rdenagailu eta kontsola elektronikoen apalategian gazteak pausatuz, liluraturik. Gurasoek ezta ikusi ere egin nahi.

Erregeak eta laguntzaileak bueltaka makro-dendan —nork esan zuen amerikarrek dohain berezia dutela saltzeko?—, eta arrakasta handiena —gurasoen artean, jakina—, patineteak eta plastikozko kotxeak. Saltzailearen begirada harrituaren aurrean, bere gaztaroan patinetearekin une apartak bizi izan zituela erakusten du ama batek, eta horren gainean jari ondoren, poza itxura azaleratzen zaio kopetan.

Mutikoren batek gehiegi galdetzen baldin badu jostailu batez, hau da, etxera bertatik eraman nahi baldin badu, erraza da atarabidea: «Erregeei eskatu behar-ko diezu». Horrela denak pozik. Gauzatu da beste urtebetek ilusioaren gezur nagusia.

Ateratzeko bidean, erakusgai dauden haurrendako ordenagailuekin salseatzen ari dira gurasoak —etxera eramango dutenarekin jokatu ahal izateko espe-rantzarekin?—, eta dagoeneko askori antzematen zaio aurpe-gian neke eta aspertu itxura: «Goazen hemendik!», oihukatzen dio emazteari karrotxoa gainezka daukan gizonezko batek. Emaztea «2 eta 6 urte bitarte-koendako» leloa daukan orde-nadoreu batekin ari da denbora-pasan.

Horregatik, zorabiotik urrun, duda-muda galanta eta sakona. Zeinendako erosteta: haurren-dako edo gurasoendako?

mintzoak

## Urtearen heriotza

● Egunerokoaren mailuak golpe latzak ematen zituen ezker-eskuin. Guttirengatik libratu zen. Armiarma sareak deskuidatuz gero harrapatuko zuen bera ere. Garunetan lehegailuak paratzen dituztenak libre ikusi zituen. Laisterka abiatu zen, itoka. Etxera sartu zenean, sala barreneko leiho ttikia pozoia goitika botaka ikusi zuen.



Ama saltzaileek Sarajevo guzien postalak bidali zizkioten. Eguberri zorionsuak, eta zozketarako zenbakia! Erreportai txit interesgarriak egun hartan ere berri-emaileek, tripa gosetuen ondorio tamalgarriei buruz. Jainkoak hala nahi, halajainko! Biba Zapata!, Errege egunean, baina bertako erregeak horrelakorik ez nahi bizirik. Azal diferenteko norbaiti harrika ari zitzazkion nexka-muttiko kokkor batzuei erreparatu zien leihotik, berendatu bidenabar. Ez zen zentsura arrastorik ageri argitaratzen utzi ez zituzten egunkarietan.

Bere itzalarengandik gehiago iheska ez ibiltzeko erabakia hartu zuen orduan. Guardasola ideki zuen iskimela-euriak zauritu ez zezan. Harekin salto, handik errekarra. Galderak eta zenbait kontu ero eramanez zizkien aingira eta izoki mezulariei, itsaso urrunetako adiskide anonimoentzat. Ilargi betea azukrea zen eta printzesak bera gonbidatu. Halaxe ase. Hegorantz zihozazen lertxunen hegalek goxo-goxo iratzari zuten. Eta Mediterraneoko poeta bat gurutzatu zuen gero, via fora! Lamizulo batek irentsi zuen bat-batean. Guardasol-txalanta eta guzi erori, erori, Zugarramurdiraino. Esperoan zitu.

Urtearen heriotzaren berri ikasi zuen hantxe. Denboraren tartari berte mazela bat jan ziotela alegia. Iraganak ez du bueltarik, geroak geroko. Itsasoari zardiñak ebatsi zizkioten. Sua biztu. Urtearen hasiera ardo-te bihurtu zen. Bertetan gozatze ko ez da bertolaririk behar.



Ariztegi.

## «Baztandarra tuku-tuku»

T. SATRUSTEGI / IRUNEA

«Belate eta Otsondo mendateen artean dagoen harana da Baztan, 347 kilometro karratuko zona; edo hobeto esanda, 373,85 kilometro karratukoa, 1969an Amaiur herriak bat egin baitzuen Baztanekin, bere 13,99 kilometro karratuak gehituz. Egun, hauexek dira Baztango herriak: Amaiur, Erratzu, Azpilkueta, Arizkun, Elbete, Elizondo, Gartzain, Lekarotz, Irurita, Arraiotz, Oronotz, Ziga, Anitz, Berroeta eta Almandotz». Horrela hasten da Iruñeko Aurrezki Kutxa Municipalak argitaratu duen 'Baztan' izeneko liburua.

Lander Santamaria eta Gabriel Inbuluzketa kazetariak idatzi dute, eta Ana Mari Marin margolariak egin ditu testuekin batera ageri diren olioak. Guztiak baztandarrak jaiotzez, eta lagundu duten beste batzuk —Jorge Oteiza artista eta Salvador Martin Cruz medikua— baztandarrak «bihotzez», beren ikuspuntuak plazaratu dituzte obra honetan. Oteizak liburuaren hitzaurrea egin du, Ana Mari Marin margolariari dedikatua, eta Martin Cruzek idatzi du sarrera.

Liburu honekin Baztango biztanleen izateko modua, bertako kultura, bizitzeko era, sinismenak, historia, sukaldaritza eta bestelako informazioa eskaini nahi izan dute egileek, «gure ikuspuntutik begira, baztandar batzuek egina, baztandar guztiei zuzendua».

Hala ere, «haranaren irudi idilikoak suma daiteke liburu hone-

tan», dio Lander Santamaria egileak, «gehiegi kasu batzuetan, baina hau gure sentimentuen eragina izan da, eta honekin garbi utzi nahi duguna da orrialde hauetan irakur daitekeena desagertzear dagoela». Egungo egoera larria da Baztanen, «krisiaren goibeltasunean murgildua

dago Baztan, denboraren aldaketak eragin izugarria izan du bertan, baserri mundutik 'zibilizazioa' pasatu gara, aldaketa itzela».

Hori bai, irtenbideak ere eman ditu, garbi esanez baztandarrak direla egoera horri aurre egin eta pausoak eman behar dituztenak.

«Gure ustez, iraultza erradikala positibo izango litzateke, bake-tsua baina erabatekoa, berritzailea, azken finean».

Berrogeita hamar kapitulutan dago banaturik liburua, bakoitzak haranari buruzko gai edo herriren bati buruzkoa. 'Baztandarra tuku-tuku' izeneko bat ere badago. Esamolde ezagun honi buruz mintzo da Gabriel Inbuluzketa kazetaria, baina esanahi ugari izan dituzte beti hitz horiek. «Baztandarra nolakoa da? 'baztandarra tuku-tuku' esatearekin nahikoa da. Oso zaila da esplikatzea esamolde honek, zehazki, adierazi nahi duena, baina denok ulertzen dugu».

Baztandarra alaia eta aldi berean sikua omen da, herabetia, bere munduan bizi dena, eta batzuek diotenez, errezelu handikoa eta, jakina, fidatzen ez dena ez da fidatzekoa. Politikoki kontserbadorea, kristaua eta nola ez, tripaundia eta edanzalea. Langile fina, besteei laguntzeko prest omen dago beti. Horrela definitu izan dute aspalditik baztandarren izaera.


'Baztan' liburua salgai dago dagoeneko liburutegietan, 2.800 pezetan, Osotara, lau mila bostehun ale argitaratu dituzte, horietatik mila besterik ez euskaraz, Baztango biztanleen gehiengoa euskalduna izan arren. Liburuaren aurkezpenarekin batera, Aurrezki Kutxa Municipalak Ana Mari Marin margolariaren olioan erakusketa zabaldu du aste honetan, liburuan ageri diren lanak eta egin dituen beste batzuk erakusteko.



Mauricio Elizalde.



## XAKEAN



Iruñea Hiriko Torneo itxiaren laugarren ihardunaldiko partida, 1993ko abenduaren 30an jokatua.

Peter Leko, 2.555 ELOkoa (Hungaria)-Andrek Sokolov, 2.525 ELOkoa (Errusia).

1.e4,c5; 2.Zf3,e6; 3.d4 cxd4; 4.Zxd4,Zf6; 5.Zc3,d6; 6.f4,Zc6; 7.Ae3,e5; 8.Zf3,Zg4; 9.Dd2,-Zx3; 10.Dxe3,exf4; 11.Dxf4,-Ae6; 12.0-0-0,Ae7; 13.Zd5,0-0; 14.Ac4,Gc8; 15.Ab3,Za5; 16.Zxe7+,Dxe7; 17.Axe6,Dxe6; 18.-Gd5,Zc6; 19.Zg5,Dg6. 20.Gd2,-Gfe8; 21.Ge1,d5; 22.e5,f6; 23.-Zf3,fxe5; 24.Zxe5,Gxe5; 25.-Gxe5,Gf8. Beltzen estrategia ezin hobeia izan da. Txuriak beren amaraunean jausi dira. Adibidez, 26.Dg3,Ze5; 27.De5,Gf1 xa; 28.-Gd1,Dh6 xa. Nondik aurkitu irtenbidea? Ikus koadroa. 26.Dxf8+,Exf8; 27.Gexd5,De4; 28.-b3,h6; 29.Eb2,Eg8; 30.c3,Eh7. Beltzek erregea gorde dute zerbait saiatu aurretik. Garaipena ez da erraza. Zalduak toki ona aurkitu behar du. 31.h3,Ze7; 32.-G5d4,De1; 33.Gd1,De5; 34.Gd7,Zf5; 35.G1d2,De1; 36.Gd1,De4; 37.G1d2; De1; 38.Gd1,-De4; 39.G1d2,a6; 40.g4,Ze3; 41.Gf7. 41...b5; 42.Gdd7,Dg2+; 43.Ea1,Dh1+; 44.Eb2,Dg2+; 45.Ea1,Eg6; 46.Gxg7+,Ef6; 47.-Gdf7+,Ee5; 48.Ge7+,Ef4; 49.-Ggf7+,Eg5; 50.Gxe3; 50...Dg1+; 51.Eb2,Dxe3; 52.Gd7,DXh3; 53.Gd4,Dg2+; 54.Ea3,Dc2; 55.c4,Dc3; 56.Ge4. Txuriek amore eman zuten.

## Nire lagunaren ametsa

**N**ire lagunak Marina du izena eta Frantzian bizi da. Bera familia-ko gazteena da eta oso liraina. 15 urte dauzka eta gau batean amets bat izan zuen: Bera hogeituro urteko neska lirain bat zela eta bere ametsetako mutila lortzen zuela. Berak esan ziguniez honela izan zen ametsa.

Bazen behin herri txiki bat, oso ederra. Bera, Marina, herri horretako etxe haundi batean bizi zen eta oso aberatsa zen. Hango mutil begiurdin batetaz maitemindurik zegoen, baina mutila ez zen oso aberatsa eta etxe txiki batean bizi zen bakarrik. Marinaren etxeko jardinean egiten zuen lana eta hortik etorri zitzaion Arkaitzen amodioa. Arkaitzek ez zekien Marina berataz maitemindurik zegoela, baina egun batean, Marinak bere amodioa eman zion. Arkaitzek onartu egin zuen, baina Marinaren gurasoek ez zuten onartzen.

Marinaren gurasoak oso arraroak ziren, zeren eta Arkaitzek Marinak baino gutxiago balio zuela esaten zuten. Baina egun batean, Marinak etxetik ihes egin zuen Arkaitzekin, bere maiteminarekin. Hauek, herri txiki horretatik oso urrun joan ziren. Marina neskametzat lan egiten jarri zen eta Arkaitz lehenago bezala etxe bateko jardinean lan egiten. Diru asko aurreratu zuten biak lan eginez.


Marina haurdun geratu zen eta nahi ez bazuen ere, bere gurasoen laguntza behar zuen, zeren ez zuten umea aurrera ateratzeko nahikoa diru. Umea jaio eta gero, Marinaren gurasoen etxean azaldu ziren hiruak. Marinaren gurasoek ez zituzten onartu nahiz eta umea eduki. Arkaitz gaixo zegoenez, herrian geratzea pentsatu zuten, Arkaitz lehen bizi izan zen etxean.

Marina dirua eskatzen hasi zen etxez-etxe, baina ez zuen diru asko ateratzen. Behin bere amak kalean eskatzen ikusi zuen eta bere alabarengatik lastima hartu zuen. Gau batean Marinaren amak aitari komentatu zion Marina eske ikusi zuela eta lastima hartu zuela. Bere aitak ez zuen onartu nahi, baina bere amak Marinari laguntza eman zion.

Egun batean amak, Arkaitz, Marina eta beraien alaba, Yoana; etxera eraman zituen afaltzera eta betirako han gelditzera. Aitak hasieran ez zituen onartu nahi bai-

na amak esan zion gelditzen ez baziren bera ere etxetik joango zela beraiekin. Orduan aitak onartu egin zituen baina ez bere borondatearekin. Azkenean gau batean ongi hitz eginez dena konpondu egin zuten eta gurasoek onartu zuten beraien errua izan zela. Beraiek esaten zuten Arkaitz diruarengatik bakarrik ezkondu zela Marinarekin. Baina azkenean dena konpondu zuten eta denak ongi bizi izan ziren.

Orain kontatu dudana gure laguna Marinaren ametsa bat bakarrik izan da, zeren eta errealtatean horrelako oso kasu gutxi izaten dira. Denak horrela bukatuko balira, nik uste dudanez, etxetik asko eta asko joango ginateteke.



## AITZIBER NAVASCUES

(LEITZA)



## JUANTXO URDIROZ

## Atarian bi hitz

Irudimena, nonbait diotenez, behera omen dihoakigu, errealtatea gero eta atseginago zai- gualako. Lehenago aski zen komiko batek leloarena egitea jendeak farre egin zezan. Orain aldiz ez, orain benetako lelo bat ageri behar zaigu. Era berean, 'Hamlet-ean' hilketa pila kozkor bat ageri arren, Puerto Hurra- co-ko gorabeherak nahiago ditugu. Telebistak, behintzat, horretara omen du joera. Eta he- men ere, txoko txiki bat, narrasa bada ere, utzi nahi genioke morbotasunari. Ez zaitezela ordea engaina, irakurle. Odola ez da atzo arratsaldekoa, gogor- gogorturik baizik, duela ehun

urte baino lehenagokoa gutxie- nez.

**Usiko Hileta-hilketa.**

Informazio iturria Iruñeko Eliz- barrutiko Artxiboa da, baina hor- ren berririk ez dago ezta Usiko herrian ere. Denek atzendu dute pasadizua.

Usin lagun bat hil zen, eta etxe haundikoa zelako, hiletan apez bat baino gehiago izan ziren. Ohi zenez, hildakoaren etxean afari bat izaten zen hileta egindakoa, urrun-urrunetik etorri zirenen- tzat, apezentzako eta abar. Senide eta ahaideak neke-neke eginda denak segituan goatzera. Apaiz- zak bakar-bakarrik geratu ziren



**Apaizak oihuka ari dira. Halako batean sekulako burrunba. Sartu eta zoraluzean solaskide bat. Odola dario.**

afalondoa luzatzeko. Beste egin- kizunik ez zegoenez, kartetan ha- si ziren, musean hain zuzen ere. Jakina denez, musa Euskal Herri- ak munduari eman dion gauzarik unibertsalena omen da, haren hiztegi teknikoarekin eta guztiz. Etxeko andreak alabari sutondo- an geratzeko esan zion, apaizek zerbait nahi izango balute haiei zerbitzeko. Alaba sutondoan eserita loak hartzen du. Brasta- koan itzarri egiten da. Apaizak oihuka ari dira. Ez da ausartzen sartzera. Halako batean sekulako burrunba. Sartu eta zoraluzean etzanda solaskide bat. Odola da- rio. Buruan dauka kolpea. Argi- mutila eskuan duena aieneka hasten da. Etxean barrena aita, aita esanez doa alaba, atzo geroz- tik aitarik ez duela ohartzen de-

nean. Hileta bateko loreak ustel- du gabe, eder-ederrak beste ba- terako. Hori ez da nolana ikus- ten Usi bezalako herrixketan.

Zergatia ez da sekulakoa, kar- tetako erregeak goabehera. Bu- rua bihotza hoztekoa da eta be- randu helduz gero ez du erre- mendi. Hiltzailea epaitu gabe le- kutu zen Usitik. Hala ere justi- zia eskein ziezaiokeen zigorra baino gogorragokoa jaso omen zuen. Barrungoak joa, Andaluzia aldera erotu egin bide zen. Ho- naino agiria. Eta herrian galde- tzen baldin baduzue horren be- rririk daukaten, ezetz esanen di- zute. Garai hartan negar egin ahal izateko ez zuten besteen bizka- rretik aitzakirik aurkitu beharrik, aski zuten haien bizitza maleru- sarekin.

**S**ortu zenetik 12 urte luze joan eta gero, kolorea sartu du 'Tipi-Ttapa' herri aldizkariak bere orrialdeetan. Huskeria irudi lezake, baina Beran egoitza duen hamabostekari honen sendotasunaren seinalea da, era berean. Aldizkaria 5.700 aleko tiradarekin, erabat errotuta inguruan, asteartean egin zuen berrikuntzen aurkezpena.

## 'Ttipi-Ttapa' berria kalean

ALBERTO BARANDIARAN / BERA

Aurkezpen soziala egin zuen joan den astearte arratsaldean 'Ttipi-Ttapa' hamabostekariak, aldizkarian sartu dituzten berrikuntzen berri emateko. Eta bertan jenderik ez zen falta izan. Berako Herriko Etxearen behean dagoen bulego txukunean, udal, administrazio eta zenbait komunikabidetako partaideak izan ziren, aldizkariak jaio zenetik izan duen partaidetza zabalaren lekuko.


Han ziren, besteak beste, Juan Oronoz Leitzako alkatea eta Mirentxu Amigorena Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikakoa, eta baita Juan Miguel Almandoz Arantzako alkatea ere. Beraiekin batera, David Anaut Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikaria, Jose Luis Semper eta Iñaki Gogorza Berako Udaleko zinegotziak eta Arkupe jubilatuen elkarteko lehendakaria.

Joxemanuel Irigoien erredakzio arduradunak azaldu zituen aldaketaren nondik norakoak. Izan ere, inprimategien arteko konpententzia dela eta, gastuak franko murriztu baitira eta, horrela, «kostuak nabarmen igo gabe», azaldu zuen Irigoienek, «eskaintza hobea eta berritua eskaini ahal dugu».



Aurkezpen ekitaldian Mirentxu Amigorena Hizkuntza Politikako Zuzendaritzakoa eta Juan Oronoz Leitzako alkatea izan ziren, besteak beste. MARTIN GOIKOETXEA

Erredaktoreak, hala ere, apustu handia izan dela nabarmendu zuen, aldizkaria berritzeko lanerako aurrerapauso bat, eta 1982an hamabostekaria atera zenetik ibilaldia gogoratu zuen.



Joxemanuel Irigoien aldizkariako zuzendaria.

MARTIN GOIKOETXEA

Hasiera hiru hilabetetik behin ateratzen zen kultur kutsuko aldizkaria zen 'Ttipi-Ttapa', baina berehala konturatu ziren bultzatzaileak bide horretatik ez zegoela etorkizun handirik. Orduan etorri ziren lehen aldaketak, eta 1990ean izan zen lehen 'iraultza' handia: hamabostekaria debalde eta toki guztietan banatuta. Horik aitzina hazi besterik ez du egin 'Ttipi-Ttapak'.

Hazi eta gero, presentzia handiagoa lortu du zona osoan. Azken ikerketaren arabera, 5.700 ale banatzen ditu hamabostean behin aldizkariak, eta ale bakoitzak 3,6 bat pertsonak irakurtzen dute. Orokorrean, horrenbestez, 20.000 irakurle. Arrakasta honetan zeresan handia daukate, jakina, aurrera jarraitzeko ezinbesteko diren publizitateak eta dirulaguntzek.



## Kolore eta guzti

A. B. / BERA

■ Kolorea izango da askorendako 'Ttipi-ttapa' berriak dakarren aldaketarik erakargarriena, eta azaleko zein gibelaldeko orrialdeak azalduko dira kolorez ederki apaindurik aurrerantzean. Hori sartzeko azalpena inprimategien arteko lehian dago. «Gero eta konpententzia handiagoa dago haien artean» —azaldu zuen Irigoienek— «eta horrek kolorea sartzeko aukera eman digu, kostuak anitz igo gabe».

Horrekin batera, barrutik erabat berritua ageri da hamabostekaria. Erreportaiak eta elkarrizketak diseinuaren aldetik nahiko berrituak eta eraldatuak ageri dira eta sail berriak ere badira: prentsatik bildutakoak, galdera laburrak, 'Hontaz eta hartaz' izeneko saila, eta agenda praktikoa sartu dira. Herrietatik eta herriendako bizi den argitalpen batendako, baina, ezinbestekoa da herrietako berriak zaintzea, eta horrek franko murrizten du aukera aldaketak egiteko garaian, ar-

duradunek beraiek onartu zutenez.

Hala ere, 'Herriz Berri' sailean ere izan dira aldakuntzak, batez ere maketazioan, hau da, itxura eta aurkezpenean. Halaber, ttipi-flashak ugaritu egin dira. Aldaketa berri gehiago badituzte buruan hamabostekarian, hala nola, formatua handitzea, berri zabalagoak eta apainduagoak sartzeko, baina, dudarik gabe, ibilbide paregabe honetan urrats berri bat eman du aldizkariak. Baztan-Bidasoako aldizkariak.

## «Neroni lasaitzeko idazten dut»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Erdaraz idazten hasi den pertsona batendako erraza da azaldu nahi dituen gauzak euskaraz azaltzea?

**JUAN KARLOS LOPEZ-MUGARTZA.**— Erdaratik euskararako tarte hori nahiko zail gertatu zitzaidan, nik ez bainuen olerkia egin nahi, euskara ikasi baizik. Azkenean lortu nuen euskal kulturaren hainbat gauza neureganatzea, eta horretan aldaketa bat izan nuen: nerabezaroan idealismoz beteta zaude, eta gustuko dituzun egileak erdaldunak ziren, nire kasuan. Denbora hartan irakurri nituen Nicolas Guillen, Ernesto Cardenal, eta laguntza eman didate gerorako. Baina hori ez zen euskal literatura. Euskaraz hastean, Sarrionandia, Atxagaren 'Etiopia', Axular, Lizardi... irakurri nituen eta mundu horretan sartzeak erakarri egin ninduen, eta indar gehiago eman aurrera egiteko.

**EGUNKARIA.**— Eta erdaraz egin zenituenak oraindik gustuko dituzu, gustora irakurtzen dituzu?

**LOPEZ-MUGARTZA.**— Bai, baina barregarriak egiten zaizkit. Gaur egun ezin ditut sinatu. Nerabezaroan oso idealista zara, eta horregatik sartu nintzen euskararen munduan. Euskara zen idealismoaren aterbea, eta munduko gauza politena zen. Gero denetarik ikusi izan dut, baina orduan horrela iruditzen zitzaidan. Orduko olerkiak nahiko sinpleak iruditzen zaizkit.

**EGUNKARIA.**— 'Garraren eta karroiairen margoak' poesia liburua koloreen bidez sailkatu duzu. Zergatik aukeratu duzu eredu hori?

**LOPEZ-MUGARTZA.**— Saiatu izan naiz bide erraz bat bilatzen sentipenak adierazteko. Eta koloreak nahiko grafikoak dira, baina azken batean aitzakia besterik ez dira. Niri interesatzen zaidana da gizakien arteko harremanei buruz hitz egitea. Garraren eta karroiairen arteko guda hori izan daiteke ongiaren eta gaizkiaren arteko gu-



JOXE LACALLE

«Nerabezaroan oso idealista zara eta horregatik sartu nintzen euskararen munduan. Euskara zen idealismoaren aterbea».

dua. Horregatik aukeratu nuen 'karroia' hitza —izotza erronkariaraz—, izenburuan bertan haserrearen antzeko zerbait entzuteko. Azken batean, koloreak izango lirateke gure sentipenak, onak eta txarrak, grina baxuenak eta sentipen politenak. Zuzenago ulertzeko margoak erabiltzen ditut, eta nahiko era klasikoan. Ezkor naizela ematen du, baina itxaropenerako bidea ere ematen dut.

**EGUNKARIA.**— Liburuaren lehen atala 'Horiaren herria'

da, eta hor aipatzen dituzu toki izen klasiko zenbait —Tebas, Assuan...—, beti ere beroaren inguruan, eta nahiko grafikoak da kontakizuna, argazki moduan. Nola azalduko zenuke esanahia?

**LOPEZ-MUGARTZA.**— Horia beroaren kolorea da, beroentariakoa baita. Eta horren bidez sartzen ditut sentipen baikor batzuk, baina esaten dut gauza txarrak ere etor daitezkeela. Horrekin esan nahi dut kontuz ibili behar dela, ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka hori faltsua baita askotan. Horia izango litzateke, azken batean, gure inozentziaren irudia.

**EGUNKARIA.**— Hurrengoan, 'Urdinaren argia' izenekoan, zerua eta itsasoa azaltzen dira.

**LOPEZ-MUGARTZA.**— Orduan hasten da bidaia: inozentzia horretatik abiatuta, hasi gara munduan bizitzen. Itsasoaren bestaldean, eredu klasikoan behintzat, esaten da Heriotza dagoela, eta horretarako txalupa duzu. Nik ekartzen dut

Heriotzaren irudia, baina baita Jakintza lortzeko bidaiaren irudia ere, eta urdinak emango digu beste garbitasun bat, eta baita urruntasun pixka bat ere. Babeslekuak aurkitzen ahal ditugu bidaia horretan.

**EGUNKARIA.**— 'Bitarte txuria' askoz ere pertsonalagoa dela ematen du.

**LOPEZ-MUGARTZA.**— 'Bitarte txuria' eta 'Hil iharrausia' atalean geratzen naiz ni bakarrik, bitarte txuri hori baita niretzako heriotzaren aurreko puntua. Heriotza era askotakoa: amodio kontuetan amodioa bera izan daiteke hiltzeko modu bat, zure sentipenak azken puntu-raino eramaten baldin badituzu... Euskarririk gabe gelditzen naiz, naizen bezala, eta azkenean erortzen naiz heriotzaren atzaparretan.

**EGUNKARIA.**— Amodioa gutxitan aipatzen duzu lerro hauetan. Nahita egina?

**LOPEZ-MUGARTZA.**— Ez nuen kurtsiegia izan nahi —amodioaz hitz egitea kurtsi ez dela jakinik ere—, eta gehiago interesatzen zaizkit inguruan ditudan gauzak. Askotan, ikusten ditudan gauza horiek ez zaizkit gehiegi gustatzen, eta gehiegi hitz egiten dugu gutaz, elkartasun gutxi baitago munduan. Lehian bizi gara, eta horretarako, behar baldin badugu, zapaldu egiten dugu. Horregatik uste nuen euskararen mundua ideala zela, denak iraultzaileak zirelakoan. Hau ez da amodiozko liburua, poesia soziala da.

**EGUNKARIA.**— Eta kutsu soziala emateko aproposena iruditzen zaizu poesia?

**LOPEZ-MUGARTZA.**— Jakina, gauzak gaizki daudela salatze onena panfletoa atera eta leku guztietan banatzea da. Hori da biderik zuzenena, baina ez bakarria. Hau ere izan daiteke bide polita, akats handia izan delako olerkigintzan: lirika, artea artearen mesederako... Nik ez dut uste hala denik, eta batzuek horrela frogatu dute. Lirika ongi dago, baina hor dago epika, eta hori da gairiaren kontra. Nirea bien arteko nahasketa izan daiteke.

Juan Karlos Lopez-Mugarza

POETA



SOSLAIJA

### Toponimia ikerlea

Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) irakasle honek jaso zuen joan den abenduan Euskaltzaindiak ematen duen Felipe Arrese Beitia poesia saria, 'Garraren ta karroiairen margoak' izena duen bere lehen liburuarekin. Toponimia inguruan ikerlea, poesia betidanik idatzi du Lopez-Mugarzak, hasieran erdaraz eta orain euskaraz, eta berarendako «lasaigarria» dela dio. «Oso mundu lehiatsu batean egiten dut lan, eta askotan ito egiten naiz. Hori leuntzeko idazten dut». Bere poesia soziala dela azaldu du, eta Cortazarren adibidea paratu du hori azaltzeko. Saria ustekabe galanta izateaz gain, bere buruarekin konformeago egoteko baliagarria izan omen zaio.

NISKIJATOR

© Zaldi Eroak

